

Atxagaren marrazkia ('Soinujolearen semea'-rako egina) eta 'Obabakoak'-en oraingo edizio berriaren azala, Marta Cárdenas margolariarena.

Bilbo-Obaba-Bilbo

'Obabakoak' liburuaren 25 urteak direla-eta hitzaldiak egingo dira egunotan Bilbon

:: FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Ekain honetan 25 urte betetzen ari dira Bernardo Atxagak 'Obabakoak' liburua plazaratu zuela. Ospakizunak Bilbon izango dira, Asteasuko idazlearen hiri kuttunean. Hantxe hasi zen idazten, Gabriel Arestiren bultzada jaso eta gero. Gaur omenaldi egingo dio Udalak eta idazleak '25 urte eta gero' izenburuko hitzaldia egingo.

Bilbo Zaharra euskaltegia da ospakizunaren motorra, eta zehazkiago hango Pedro Alberdi. Karpa ipiniko dute Arriaga antzokiaren aldamenean, lau egunez egongo dena zabalik, gaur hasi eta ostegunera bitartean. Hain zuzen ere, osteguna ere egun handia izango da, Klasikoen VI. Irakurraldia egingo baita. Irakurraldia goizeko 8:00etan hasi eta arratsaldeko 20:00etan amaituko da, lehen pasartea Atxagak berak irakurriko duelarik. 400 lagun inguruk hartuko dute parte; euskaltegiko ikasleek ez ezik, euskal kulturarekin, gizarteare-kin, ekonomiarekin eta politikarekin zerikusia duten herritarrek ere bai.

Gainera, egun hauetan hitzaldiak izango dira 'Obabakoak' liburuari buruzkoak. Ibon Sarasola euskaltzaina, Inazio Mujika Iraola idazle eta editorea eta Iñaki Irazu idazlea ariko dira, azkeneko hau Joxan Goikoetxea soinujolearekin batera.

Agoteren oroitzapenak

Ez zen erraza izan argitalpen hura. Jose Luis Agotek berri-emaile ona dugu, berak egin baitzuen editore lana 1988ko udaberri hartan. «Argitalpena dezente atzeratu zen –adierazi digu–. Bernardo Eskoziara joan zen ingelesa ikastera, eta hantxe eman zion bukaera liburuari. Bost hilabete eman zituen han. Zatika egin genuen lana. Berak korreoz bidaltzen zidan zati batzuk. Idazmakina arrunt bateko folioak ziren. Nik pikatu egiten nituen ordenagailuan, eta maketazioa egiten. Bidaltzen nizkion frogak eta berak atzera niri bueltatzen, dena korreoz. Bidali nituen materialak inprimategira eta Bernardo, artean, Eskozian. Iritsi zenean, orduantxe zegoen liburua inprimategitik atera berria. Hartu zuen ale bat, eraman zuen etxera eta gau osoa eman zuen errebisatzen. Hurrengo egunean, sustoa: zati bat falta zela, 'Esteban Werfel' narraziokoa. Erein argitaletxeko nagusiari esan genion Itxaropena inprimategiko lanak bertan behera utzi behar zirela, akatsa zuzentzeko. Halaxe egin zen, baina aurretik sesioa edukita».

Agote memoria oneko gizona da eta gogoan du liburuarentzat beste izenburu bat pentsatu zuela Atxagak hasiera batean: 'Obaba-Hamburgo'.

Handik hilabete batzuetara Espainiako Literatura Sari Nazionala etorri zen. Berriz ere Agoteren testigantza: «Nik esango nuke horko epaimahaiak liburuaren erdia-edo irakurri ahal izan zuela. Korrika egin ziren itzulpenak. Bernardok berak itzuli zituen ipuin garrantzitsuenak. Beste batzuk, Bakartxo Arrizabalagak. Eta gero Joseba Urteagak gainbegiratu bat eman».

Badago 'Obabakoak'-en ipuin bat sekula gaztelerara itzuli ez dena, 'Jose Francisco' delakoa, Asteasuko euskara itxian idatzita dagoelako. Inoiz saiatu omen da Atxaga, baina ezinezkotzat jo, eta albora utzi. Gainera, diotenez, idazleak ez du lan hori bere onenen artean kontsideratu.

Mujika Iraola, Iñaki Irazu...

Bihar hitzaldia egingo du Inazio Mujika Iraolak Bilbon. Hain zuzen ere, berak prestatu du 'Obabakoak' liburuaren edizio berria, bihar aurkeztuko dena. Besteak beste, elkarrizketen ezaugarri ortotipografikoak aldatu ditu Mujika Iraolak: «Atxagak anglosaxoien moduan idatzi zituen elkarrizketak, komatxo bakun batez. Nik orain gidoiez eman ditut», adierazi digu. «Eta beste gauza batzuk ere ukitu ditut, baina beti kontu handiz: 'Camilo Lizardi'-ko prosa, adibidez, askoz gutxiago ukitu behar izan dut, horko hizkera berezia delako».

Baina biharko hitzaldian beste gauza bati buruz mintzatuko da Mujika Iraola, 'Obabakoak' argitaratu zen garaiaz eta giroaz. «Oraingo kritikari gazte batek oso iruzkin laudoriozkoa egin zuen nire 'Azukrea belazeetan'-i buruz, esanez, gainera, 'Obabakoak' baino urte bat lehenago plazaratu nuela. Ez zen konturatu Atxaga lehenagotik zetorrela, askoz lehenago publikatua zuela 'Camilo Lizardi' ipuina eta baita 'Bi anai' liburua ere. Eta Torrealdaik zenbat 'Jakin' saldu ote zituen 'Post tenebras espero lucem' zekarren ale harenak? Horretaz guztiaz hitz egingo dut Bilbon. 80ko idazle gazte baten oroitzapenak agertuko ditut».

Etzi Iñaki Irazu ariko da, Bernardoren anaia. Joxan Goikoetxea aldamenean duelarik, Irazuk jardun dramatizatua egingo du. Ipuin bat eskainiko du, zazpi atalez osatua, atal bakoizak Goikoetxeari txanda eman-

1984ko argazki honetan Mikel Laboa, Bernardo Atxaga eta Jose Luis Agote ageri dira. Adiskidetasun iraunkor baten hasiera-garaia.

Atxaga Literaturako Sari Nazionala jasotzen, Semprún ministroak emanda. Ez dago orduko argazki ofizialik eta hau telebistako irudia da.

BILBOKO EKITALDIAK

Gaur
18:00etan, Bilbo Zaharra Euskaltegia gunea (karpa) zabaltzea, Arriaga antzokiaren ondoan. 19:00etan, 'Obabakoak' erakusketaren inaugurazioa. 19:10ean Bernardo Atxagari errekonozimendua Bilboko Udalaren eskutik. 19:20an Foruma Bernardo Atxagarekin: '25 urte eta gero'. 20:30ean, Forumeko partaideentzako errekonozimendua: luntx-a eta Dj-a.

Bihar
12:00etan, 'Obabakoak' liburuaren edizio berrien aurkezpena, Alfaguara eta Erein argitaletxeen eskutik. Bernardo Atxaga bera izango da bertan. 19:00etan, Foruma Ibon Sarasola eta Inazio Mujikarekin.

Asteazkenean
19:00etan, Foruma Iñaki Irazu eta Joxean Goikoetxearekin.

Ostegunean
8:00etatik aurrera, egun osoan zehar, Klasikoen VI. Irakurketa Jarraitua. Bernardo Atxagak emango dio hasiera.

go diolarik. Izenburua, berriz, hau: 'Werfel jauna, ingeniari alemaniarra, Esteban Werfelen aita (aingeruaren hiru haserreak)'.

Irazuk honela aurkeztu digu emanaldia: «Jalak dira Obaban: jendea, musika, tafernak... Werfel jauna plazan dago eta semearen hutsunea izango du: non ote dago? norekin? zertan?... Izan ere berak bultzatu zuen herria uztera, bizimodua hurian egitera... Galdera bat lotzen zaio: zer utzi du baliozkoa atzean, herria uztean? zer galdu du? Horretan, hiru boz adituko ditu erantzuna ekarriko diotenak (aingeruaren hiru haserreak)».

Atxagak gaur egingo du hitzaldia. Zertaz jardungo duen? Lehengo ostiralean Frantziako Perigord aldean zen idazlea, baina eman zigun bere asmoen berri: «Besteak beste, mintzatuko Donostiaz eta Bilboz, herri txikietako autoreen backgroundaz, horien literatura-motez... Aipatuko dut 'Obabakoak' nola argitaratu zen beste hizkuntzetan inolako literatur erakunderen babesik gabe. Nik horri 'Axularren mirakulua' deituko diot».

Bihar eguerdian 'Obabakoak' liburuaren edizio berria aurkeztuko dute, idazlea bertan dela. Badu argitalpen horrek material guztiz berri bat: Marta Cárdenasen marrazkiak. Urte asko dira Atxaga eta margolari hau adiskide egin zirela, eta idazleak elkarrizketa luzea egin zion berak zuzentzen duen 'Erlea' aldizkarirako.

Cárdenasek, gaztelaniazko edizioa abiapuntutzat hartuta, liburuko zenbait eszena irudikatu ditu. 'Camilo Lizardi'-ko orrietan, adibidez, basurde zuria. Eta portadarako, berriz, muskerra margotu du, liburu honen hainbat ediziotako azaletan ageri den motiboa, hain zuzen ere.

Atxaga contará hoy cómo sucedió «el milagro de Axular»

Las editoriales Erein y Alfaguara presentarán mañana las nuevas ediciones de 'Obabakoak', que cumple 25 años

:: F. I.

SAN SEBASTIÁN. El libro 'Obabakoak' de Bernardo Atxaga cumple este junio 25 años. Con este motivo, la editorial Erein –en euskera– y Alfaguara –en castellano– han preparado ediciones totalmente renovadas, y que incluyen ilustraciones de la pintora Marta Cárdenas, vieja amiga del escritor.

La presentación de los dos libros se llevará a cabo mañana al mediodía en la carpa que al lado del teatro Arriaga ha instalado el euskaltegi Bilbo Zaharra. Todos los años, por estas fechas, y a modo de remate festivo del curso escolar, ese euskaltegi organizada una lectura ininterrumpida de algún clásico del euskera. El año pasado fue 'Zergatik Panpox', de Arantxa Urretabizkaia, y esta vez se leerán las páginas de una obra bastante más larga: 'Obabakoak'.

Pero ya hoy mismo Atxaga aparecerá por el Bilbao de sus amores, la ciudad en la que dio los primeros pasos como escritor, compaginando esa tarea con otras más frustrantes. El escritor ofrecerá una conferencia en la que, entre otras cosas, rememorará los primeros años 80, la época en la que se gestaron las narraciones que componen el libro 'Obabakoak'. «Contaré también la manera en que el libro se fue publicando en otras lenguas, sin el apoyo de ninguna institución literaria. Se produjo lo que llamo 'el milagro de Axular'», ha comentado.

Atxaga siempre ha reivindicado Bilbao, en contraposición a San Sebastián. Fue allí en Bilbao donde se relacionó con Gabriel Aresti, quien le animó a dedicarse a la escritura, y donde colaboró con el dibujante Eguillor. De ese tándem surgieron las primeras obras de literatura infantil del escritor que luego llegaría a ganar el primer Premio Nacional de Literatura por una obra en euskera. También en Bilbao se reunían los miembros de la banda Pott, en la cafetería del teatro Arriaga, y precisamente es por ello por lo que Atxaga pidió que en la portada de 'Obabakoak' apareciera ese edificio.

'Obabakoak' vio la luz en 1988. Atxaga recopiló en ese libro dos tipos de materiales: unos cuentos que ya habían sido publicados anteriormente de manera suelta y otras narraciones completamente nuevas. Si bien se tiende a remarcar que esta obra tiene ecos de la vieja tradición de la narrativa oral en euskera, también es cierto que contiene guiños a autores tan variados como Poe, Maupassant, Txekhov, Villiers de L'Isle-Adam, Schowb y otros más recientes, como por ejemplo Waugh, Quiroga, Rulfo, Cortázar, Borges y Isaac Bashevis Singer.

Los actos en torno al libro se desarrollarán en una carpa junto al teatro Arriaga de Bilbao

Atxaga ambientó sus historias en un lugar imaginario llamado Obaba, un sitio premoderno en el que cabe el realismo mágico. ¿Cómo así ese nombre? Atxaga lo explicó así: «Vivía en Bilbao, en una casa de huéspedes. La patrona era de Zeanuri. Había comprado un magnetofón y le pedí que me cantara algo, quería probarlo. Para mi sorpresa, me cantó la vieja canción de cuna 'Obabatxue, Obabatxue'». En otra ocasión, el escritor manifestó que «en todas las culturas, el sonido por antonomasia del lenguaje infantil es el de la consonante B, «y por eso en euskera se dice 'obabatxu', en castellano 'bebé', en inglés 'baby', en italiano 'bambino'... Yo quería mostrar un mundo antiguo, y por eso quería que esa geografía tuviera un nombre que incluyera la letra B».